



2006-09-02

Asteburuetan Leioako campusean ikasi ahal izango da

Euskal Herriko Unibertsitateko Leioa eta Erandioko campusak ikasgelak zabaldu ditu gaur unibertsitateko ikasleek iraileko azterketak presta ditzaten eta irekita izango dira datorren irailaren 16ra bitarteko larunbat eta igande guztietan. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasgelategiaren ordutegia 13:00etatik arratsaldeko 7:30era da. Berriz, liburutegi nagusian goizez ikasiko ahal izango da datozen bi larunbatetan, irailaren 9an eta 16an, alegia. Egun horietan liburutegiak goizeko 9etatik 13:00etara arte zabalduko ditu ateak. Bilbon ere, ikasteko aukera izango da Sarrikon dagoen Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean eta Ingeniaritza Eskolan. Leku guztietan, baina, EHuko ikasle txartela eskatuko dute.